

**KULTURA**

sortzen dugu

BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara. Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Hau da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk** =

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

# Deia

Lege gordailua: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025

2002ko MARTXOA  
42. zkia. DOHAIN

*Euskararen  
Astea*

*Tas-Tas  
Irratia*

*Artxandako  
Trikuharriak*

*Anje Duhalde*

**Josune Fontetxa**  
**"Bitartekariarena oso  
lan zaila da"**







## Begoñaibarra eta Uribarri 1950 urtean

*Zahar-zaharra ez da oraingo argazkia, baina aldatuta dagoz gero Begoñako bazter horiek! 1950 urte aldean Begoñaibarrako Campo Volantinen burges familia handien txaletak oraindinoko zutunik egozan. Euren artean, erretratuaren ezker aldean, orain dala urte gitxi batzuk botatako Agirre txaleta. Eta atzerago, Loruria edo Ciudad Jardin, 1970 urte aldean altxatutako Maurice Ravel autobidea barik. Artxandako egi zabalak etxeak noiz egingo zain egozala emoten dau. Orduan mendian gora funikularra baino ez joian. Gaur egun hortxe dagoz Uribarri eta Zurbaranbarriko bloke altuak.*

*Argazkia, "Banco de Vizcaya. Revista financiera. 1951" liburutik hartu dogu.*



▶ Iritzia .....	.4	▶ Mahatsberriak .....	.20
▶ Euskararen Astea .....	.5	▶ Hezkuntza .....	.24
▶ Begoña eta Euskerea .....	.8	▶ Mendi Ibilbidea .....	.27
▶ Tas-Tas Irartia .....	.10	▶ Anje Duhalde .....	.28
▶ Artxandako Trihuharriak .....	.12	▶ Horoskopoa/Agenda .....	.30
▶ Elkarrizketa: Josune Fontetxa .....	.15	▶ Hileko Argazkia .....	.31
▶ Inkesta .....	.19		

Ederra ein dostie honeik Bertonekoak! Oin jente guztidxe danagaittik kobraten hasi danién, Bertón de balde! Anje Duhaldeen kontzertue bera bere de balde ez ta Bertón bai! Eutsi horri ba! Nik pentsaten neuen hamen honeik eskribiduten dotezenak leidutearren baten batek pagau bere eitten dauela, ta orduen norberak ilusiñotxuegaz edo eskribiduten zeuen. Ta ahalegintxue eitten neuen esaten dotezenak esan bier dan modure eskribiduteko ta kontateko, ze, nonok pagetan badau hareri serbizio ona emon bier jako ta gустure lotu bier da.

Baie neuri kontsultau barik, ta txarragoa dana, ezer bere esan barik bere, Bertón de balde emo-

ten hasi direz. Ta ondo dago jentieri Josune Fontetxak zer diñoen, edo Tas-tas irratidxe zelan dabilen, edo Artxandan zemet menhir dagozen de balde kontatie. Hori bai, ze denok dekogu deretxoa hori dana jakitete, baie nik kontaten dotezenak asko pentsaute ta buruen buelta asko emonda eskribidu, ta gero europu-tobapere kobrau barik edonori leiduteko eraz ixtie ez dago ondo. Beraz, hameti aurrera gure badozue honeik kontuok de balde leidu, ondo! Baie nik kobrau barik ez dot segiduko, ze artistie artistie da, ta edozein biergineri eitten jakon modure hareri bere bihera pagau ein bier jako, beraz negoziaten hasi biherko garez, ezpabere.... (nori ostidxe kontauko dotzatez?)



# GURE BAZTERRAK

## AZURLEKU AUZOAREN ESANGUREN INGURUAN ETA BESTE




Auzo hau Begoñan dago, Santutxu aldean; egin-eginean bere, Boluetako alderdiaren ganean aurkitzen dogu, Basarrateko zelaitik hur. Auzo hau "Cocherito de Bilbao" zezenketariaren kalearen eta Iturriagakoaren artean dago.

"Azurleku" toki-izena jagoko azurrak egozan lekuari, hau da, azurtegi baten aitamena dago haren azpian. Historiak berak dinoskunez, eta Begoñako antxinako planoak ageri daben legez, 1859. urtean bazan baserri bat, izen horretakoa, aurkintza horretan.

Toki-izen honen nondik norakoak aprobetxatu nahi ditut, gauza bat argitzeko toki-izenen grafiaren ganean. Izan bere, ohitura handia izan da "h" letra jarteko (zorionez, eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen lanari esker, geroago eta gitxiago jazoten da), letra ha arau sistematikoaren arabera beharrezko bazan; beti bere, esan behar dogu, toki-izenak idazteko orduan, arau orokorrak ez dirala osoosoan bete behar, toponimoen eginkizunetako bat iragana, oraina eta etorkizuna uztartzea da-eta. Beste alde batetik, gogora ekarri behar da, Euskaltzaindiak antxina emoniko artezpide hau: berba batek (batuan) ez dau "h"rik izango, baldin eta jatorrizko euskalkian halako letra erabilten ez bada. Beraz, testuak batuaz idazten baditugu bere, toki-izenak, Bizkaia euskera egiten dan lekuetan behintzat, ez dabe "h"rik izango.

GOTZON LOBERA REVILLA

## URIBITARTEKO ZALDAINA



1923ko azaroaren 17an Ricardo Bastida arkitekto ospetsuak, 'El problema urbanístico de Bilbao' izeneko hitzaldian, Ibaizabaleko alde bien arteko zubi bat egiteko beharra azaldu zuen. Aldarrikapen hori aintzat hartuta, 1988an 1.356 sinadura eraman nituen Bilboko Udaletxera Uribitarte eta Campo Volantin artean zaldaina egin zezaten eskatzeko.

Asmo hori zentzunduna zela ikusita, Bilboko Udalak Plan Orokorrean sartu zuen, eginkizun gisa. Geroago, Inmobiliaria Uribitarte SAK zubi hori eraikitzeke ardura bere gain hartu zuen. Zeren truke? Depósito Franco eraikinaren errekalifikazioari esker -PSOeren babesaz lortutakoa- irabazi behar zuen etekin itzelaren truke. Operazio hori ustel suertatu zen eta haren porrotaren ostean Campo Volantin SL enpresa izan zen, beste errekalifikazio eskandalagarri baten bidez, zaldaina eraikitzeke berba eman zuena. Kasu honetan EAJren inguruko lagunak izan ziren informazio pribilegiatuari esker Agirre jauregia bota zutenak. Etekinen truke zubia eraiki zuten.

Hiri kulturaren erakusle, orduko alkate Josu Ortuondok tokiko izenak baztertuaz 'Zubi Zuri' izena jarri zion zaldaina berriari. Koloreagatik deitzeko joera hori hizkuntza herrikoia izaten da, baina kasu honetan Calatrava zubia nagusitu da herritarren artean. Izen hori are barregarriagoa da, irizpide horren arabera 'Gheryren museoa' eta antzekoak esan beharko genituzke eta.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur Elkarte

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk. Bilbo - 48004  
Tfnoa: 94 473 54 48  
e-posta: berton@euskalnet.net

**ZUZENDARIA:**  
Hektor Ortega

**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez, Joana Etxebarria, Iruene Berro, Iratxe Ruiz, Erdoitza Martínez, Unai Cuevas

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona eta Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Iñaki Berastegi, Joseba Barrenetxea

**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia, Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoetxea, Zuriñe Martínez

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**  
1.200

## APIRILAREN 15ETIK 21ERA BITARTEAN EUSKAL ASTEA OSPATUKO DA SANTUTXU-TXURDINAGAN IKASTETXEAK ETA AUZOAK ELKARLANEAN EUSKARA SUSTATZEKO



*Pasa den urteko urratsak jarraituz eta jende gehiagoren partehartzearekin, aurten mahatsorriok "Euskararen asteen" murgiltzeko aukera paregabea dugu. Auzoen euskalduntzea denon ardura delako ezinbesteko hitzordua dugu apirilaren erdialderako antolatuta dauden ekimenetan piperrik ez egitea. Ikastetxe, ikasle, irakasle, eta hainbat kultur taldeek antolatuta, euskaren erabilerari ateak zabaltzea du helburu aurtengo jaialdiak.*

Testua: Arrate Diez  
Argazkiak: Iñigo Azkona



**IRUDIA SORTZEN DUGU BILBO**

Santutxu kalea, 46  
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoeb.com/Spedro  
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com  
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA GERMÁN BERGARETXE**

GABRIELARESTI, 30 4. G TXURDINAGA

94 412 82 74

**CYBER TIME**

Ordenagailua gurea da ideiak, zureak

Sarean Jolasak Internet Inprimaketa Eskanerra Datu grabaketak

Aita Pernet, J 48004 Santutxu Bilbo

Tfnoa/faxa: 94 469 74 06  
E-mail: cyber-time.euskalnet.net  
http://www.cyber-time.euskalnet.net





erein da eta fruituak ikusten direla, oraingo erronka fruitu hori heltzea da eta horretarako, euskaraz dakigunok erabili behar dugu.

Euskararen erabilera azkenaldian "krisian dago", diote Euskararen Astearen antolatzaileak. Motelkeria zabaltzen ari da eta, ondorioz, "Mahatserrian euskaraz hitz egiteko, korronteen kontra joan behar da". Beraz une interesgarri honetan bultzada bat eman behar zaiola deritzote antolatzaileek. 70.eko hamarkadan euskara ikastearen aldeko erronka hori oraingo hamarkadan euskararen erabilera zabaltzeko bidea hartu behar du.

Aurreko urtearekin konparatuz, oraingoan parte-hartzea zabaltzen hasi da, ikastetxe berriek hartu

Ikastetxeek antolatutako euskararen jaialdi honetan, euskararen erabilera bultzatzea eta gazteak euskararen erabilera motibatzea da helburua. Era honetan, Mahatserriko hainbat jende (ikasle, irakasle eta taldeak) lanean aritu da mahatsorriok euskararen erabilera zabaltzeko ahalegin kolektiboaren premiaz ohartzeko.

Batez ere, Santutxu eta Txurdinagako ikastetxeek hartzen dute parte ekimen honen plangintzan: Txurdinaga Behekoa; Gabriel Aresti Institutua (DBH eta Batxilergoa); Karmelo Ikastola LH; Santutxu BHI; Karmelo-Solokoetxe BHI; Artabe-Txurdinaga Lanbide Heziketa. Kiriñño Ikastolak be, puntualki parte hartzeko prest agertu da. Antolatzaileek diotenez, apurka ikastetxe gehiago ere animatzea nahiko lukete.

#### EUSKARAREN EGOERA MAHATSERRIAN

Mahatserriko euskararen egoeraz mintzatzean analisi argilun bat egiten dute antolatzaileek. Alderdi honetan euskararen alde lan asko egin da eta euskaldun berri asko dago, Bilboko beste inon ez bezala, Mahatserrian euskaldun kopuru altuena baitago. Santutxun, adibidez aspaldi-ko urteetan hiru ikastola daude funtzionamenduan eta bada hainbat ikastetxe D eredu lanean ari direnak. Euskaraz dakigunak asko gara, benetan. Beraz, hazi asko



dute parte aurtengo euskal astean, antolatzaileen helburua Mahatserriko ikastetxe guztiak parte hartzea da eta bide horretan dabilza.

#### HIRU ESPARRU

Aurtengo Euskaren asteko egitarauak hiru esparru ditu. Lehen esparrua ikastetxe bakoitza da. Ikastetxeek hainbat ekitaldi prestatzen dute astean zehar euskara suspertzeko, ikastetxe bakoitzak nahi eta ahal duen erara. Ikastetxe batzuetan urtean zehar egindako lanaren ispilua edo gailurra da. Beste zenbaitetan, euskararekiko grina sortzeko egiten diren ekitaldiak dira. Baina denetan dago asmo



komuna: astegun berdinetan euskararen alde ekitaldi zaparrada antolatzea.

Bigarren esparrua eskolarteko ekitaldiak dira. Ikastetxeen artean zenbait ekitaldi prestatzean datza. Aurreko urtean "bertso paper lehiaketa" antolatu zuten, eta aurtengo iniziatiba atera dituzte aurrera. Batetik, eskolarteko kanta lehiaketa, bestetik, aurreko urtean modura bertso paper lehiaketa. Horrez gain, ikastetxeen arteko herri kirolak ere antolatu dituzte eta, erremate modura, auzoko zenbait plazatan "Euskaraz jolastu ekimena". Hau da, umeentzako jolasteko txokoa.

Hirugarren esparrua Santutxu auzoan ospatuko diren ekitaldiek osatzen dute. Auzoko kultur talde guztiak gonbidatuta daude ekitaldi hauetan parte hartzeko. Antolatzaileen esanetan, ume zein gazteen denbora librean, neurri handi batean, ikastetxeko esparrutik kanpo ematen da. Beraz, guztion ardura da gazte euskaldunak euskaraz diberti daitezen.

#### OSTIRALEAN, "GAZTERIA EUSKARAZ BLAI"

Astegunetan ospatuko diren ekimenez gain, antolatzaileen ustez, "Gazteria euskaraz blai" eta igandean ospatuko den Dantzari Eguna ekitaldi oso interesgarriak izango dira. Gazteentzako "Gazteria euskaraz blai" ekimenean jokoetan parte hartzeko aukera izango dute gazteek ostiral arratsaldean 6etatik 10etara Karmelo plazan. Bertan, aerobik-en aritzeko aukera, dantzan aritzeko aukera, konkurtsoetan parte hartu zein kantu kantari ibiltzeko tartea egongo da. Domekan, berriz, Santutxuko auzoa dantzari beteta agertuko da. Txistulariak, dantza emanaldiak, bazkaria eta erromeria izango dugu Mahatserrian Euskaren asteari agur esateko.

#### 70.EKO EUSKAL JAIK AKORDUAN

Tankera honetako jaialdiak frankismo garaian ospatu izaneko euskal jaietan dute jatorria. Frankismo garaian bost urtez ospatu ziren jarraian euskal jai hauek eta garai hartan hamarkada bat egon zen euskara ikasteko jarrera suspertzeko eta eragin handia izan zuen euskararekiko jakin-min hori zabaltzeko. Orain bi urte erronka horri eusteko asmotan hasi ziren antolatzaileek euskal asteari forma ematen eta aurtengoa bigarren urtea dugu. Euskaldunok beti euskaraz eta kito, euskaldun asko bizi da Mahatserrian batzuek ondo eta beste batzuek ez hain ondo dakitenak eta guztiak euskaraz aritzea da antolatzaileen desioa.

## SANTUTXU-TXURDINAGAKO EUSKARAREN ASTEKO EGITARAUA

### Asteartea 16

ESKOLARTEKO KANTA LEHIAKETAREN FINALA  
- Lehen Hezkuntza : Berriotoxa polikiroldegian  
- Bigarren Hezkuntza: Briñas BHI

### Asteazkena 17

- Mahaingurua: " Euskararen egoera eta etorkizuna" Andolin Eguzkitza, Martxelo Otamendi eta Xabier Mendiguren. AEK-ren egoitza.  
- Briñasen arratsaldeko 5 etan, Takolo,Pirritx eta Porrotx.

### Osteguna 18

ESKOLARTEKO BERTSO PAPER LEHIAKETAREN SARI BANAKETA ETA BERTSO SAIOA.  
- DBH Lehen Zikloa: Karmelo -Solokoetxe BHI.  
- Bigarren Hezkuntza: Gabriel Aresti Institutuan.  
- Lehen Hezkuntza: Karmelo Ikastolan.

### Ostirala 19

EUSKAL ARTEKO HERRI KIROLAK ETA JOLASAK  
- Batxilergoa, moduluak eta DBHko Bigarren Zikloa: Gabriel Aresti Institutuan.  
- DBHko 1. Zikloak: Karmelo Ikastola\_Solokoetxe BHI.  
- Lehen hezkuntza: auzoko plazetan  
"Gazteria euskaraz blai" (6etatik 10etara) Karmelo plazan  
- Altxor ezkutuaren bila.  
- Aerobik ere euskaraz, noski.  
- Euskal Kulturaren konkurtsoa  
- Dantzatzen ere euskaraz eta kito!!!  
- Tarteka marteka: Abesbatza, bertso paper lehiaketako irabazlea, kanta lehiaketako irabazlea...  
- Bertso Afaria Sorgintxulon, auzoko bertsolarien kontura.

### Larunbata 20

- Eguerdian : kale antzerkia  
- 8etan Triki poteoa. Karmelo plazatik irten eta auzoan zehar.  
- Fanfarreak eta musika.

### Igandea 21

DANTZARI EGUNA  
- Lehen orduan, txistulariak auzoan zehar.  
- 11etan dantzarien kontzentrazioa Karmelo Plazan.  
- Auzoko plaza ezberdinetan dantza emanaldiak.  
- 13etan dantzari taldeen desfilea.  
- 14etan Bazkaria.  
- Arratsaldeko 4terdian dantza emanaldi Etxebarria plaza. Eurria bada, Berriotoxoako polikiroldegian.  
- 7etan Erromeria Karmelo Plazan.

Txaskarrilloak Salaketak Enkestak  
Otxarkoaga eta txurdinagan  
**WWW.PA-YA.ORG**  
Berriak Herri mogimendua Euskal kultura  
Gure presok Pa...yak baditu alternatibak



*Lehen Begoñak eta orain Bilbok, Etxebarri herriagaz muga egiten dauen baserrian bizi da Mikaela, metro batzuk aurrerago Etxebarriko lurak dira eta horregaitik Etxebarriko, San Antonio auzoagaz daukien lotura, handia da. Santa eske egunean edota joan garan bakoitzean, zabal hartu deusku Mikaelak, beti alai, eta oraingoan be, neguko egun zakarra dala eta baserriko beheko suaren epelean hartu gaitu.*



**MIKAELA TELLAETXEA,  
ARBOLANTXAGANEKO BASERRITARRA**

## Begoña eta Euskerea

*Koldo Urrutikoetxea*

### Zu nongoa zara Mikaela?

Ni naz Mungien jaioa eta gero txikitxu izan nintzenien Arrietara joan ginen biziten. Arrieta bakizu non dagoen? Ba kruze ondoan han. Sollube azpien baia Arrietarantza ez Bermeorantza eh!. Eta gero, lehenago bakizu, danak joaten giñen krieda, ba Bilbora, Bilbon asko egon giñen hemetiko, asko. Gran Vian, hamaika urte, da gero ezkondu nintzen hona Trokara, zelako salto egin neuen Gran Viatik. Gero lau alaba hazi eta.. lar behar eginde, lar.

### Gizona baserri honetako zan ezta?

Bai Iñaki Legina.

### Hemendik Legina asko dago ezta?

Apelledu hori, asko klaro dauzena. Manu defuntuen seme guztiak

eta Legina asko.

### Non ezetu zendun ?

Ba Kasillen, Casillera joaten ginen krieda guztiok Zenbat urteagaz ezkondu zinan? Treinta y dos, berak treinta y ocho euki zituzen eta hemen beharra! Ene! Gariak eta, astoak baino txarrago eta astoak izeten ziren kotxeak.

### Ezkondutako non egin zinen, Begoñako Elizan?

Bai. Bakizu nok ezkondu euskun? Gure koñetu defuntuen anaiek, Larrabeko abadiak, Arostegi.

### Etxe honek ze izen dauka?

Arbolantxagane esaten deuskie, doscientos años edo eukiko dituz horrek albokoak, honek gitxiago.



**Mikaela Tellaetxea, alabeagaz baserri inguruan.**



egiten eban behar?

Makazagan iten eun, obran. Obran ez zen asko irebazten eh?

### Zuk etxean egiten zenduen behar?

Hombre!.Esneak eta errepartidu.

Ganadue euki zenduan?

Bai asko bost bei edo. Oin be dekoguz zekorrak.

### Eta nork gobernetan dauz?

Hemen asko juntetan gara lantzien behin.

### Esneakaz eta zer egiten zenduan?

Hona barrio San Antonio gaubien joaten nintzen eta goizien Txurdinagatik esnie repartidu Txurdinagan, plazara bendejje saldu, sindikatoan pentsue koiu, lehenago etxera pentsuek ez euren ekarten.

### Arbolantxatik behera egunero joaten zinan astoagaz?

Hombre!. Hemetik joaten nitzen sindikatora noanien; ostantzien hemetik behera beti Etxebarri.

Erriberako plazan gorta eukiten gendun, gorta bat egon zan erriberara bajatu orduko, gero moillera astoak eroaten ziren han amarraten genduzen.

Beste batzutan egiten gendun al por maior salduteko lehenengo orduen, Larrabe defuntuek, haren andra defuntie eta joaten giñen Etxebarri. Autobuse koiu, Durangokoa, astoa amarreu Etxebarri arbolak bateri, eta autobusien bendejje. Gero Erriberan bajetu, saldu, astoa koiu eta etxera

Gero etxera etorri eta esneak errepartidu igual.

Sindikatu sozia zen gure defuntie Calixta Aiarza, gero bota euden eta ezebe.

Kallejoien egoten zen gero peskaderue, eukiten euen peskaue!

### Soloan be egingo zenduen zeuen behar ezta?

Soloan beiekaz asko, oin traktoragaz baie orduen beiekaz egiten zen dana.

### Zeuren be ibiltzen zinen?

Ez enbrak ez beiekaz, bueno atzetik edo...gizonak egiten euren makinetu eta hori.

Gizonak fabrikean edo

Lehenago San Justo egunean hemen fiesta handiek egiten genduzen.

Famili guztie, etxera inbiteute, baten ginen danok. Oin hori modie akabatu zan.

### Jai hori fiestarik handiena izaten zan hemen?

Bai, San Justo ze egon zan lehenago Santa Marinan San Justo.

### Eta San Isidro ?

San Isidro Begoñen zan fiesta, sindikatoan. Urte baten joan ginen. Mezie eta bazkarie sindikatoan

### Andra Mari eguna egiten zenduen?

Ez, gu San Justo izaten gendun te, ba. Eta oin kanbie dogu, hori fiestie kendu duen modun, orain inbitaten doguz abuztun, Amabirjinen egunen.

### Gerra denporatan zeu umetxua izango zinan eta ez zendun ezetuko ezta?

Ez dodala ezetu? Hamabost eta hamasei euki nituzen

### Akordaten zara?

Hombre! akordaten naz. Arrietatik aitzie difuntu euki nuen Zamudion eta umiek jagoten, hamar urteko diferentzi eukiko gendun guk, gero, gerrie tirotea Sollubetik eta soldaduk be etor jakuzen baten, gure koñatu defuntue gorrie bakizu, eta Franco sartu zanian zuriak izen ziren erregular. Egun batean akorda jako ba Sollubetik onantza dotoz eta billurre, karroak hartu gendun eta Zaramillora joan ginen hamabost egun egiten gendun Zaramillon karroakaz, beioakaz da oiloskoak eta patatiek, San Juan makats bat itxi gendun bete beterik, udie izengo zan eta bueltan bapez, Zallan edo, han be tunel bat, tunelak eta topetan ziren osteteko han aeroplanoak goitik eta tuneletara sartzen ginen, tunelean sartu eta txaletak, aurrean egoten zirenak be, heuts eginda egon zan, huts.

### Familiakorik edo gerrean hil jatzen?

Ez! Ordu ez, suerte euki gendun, baie sustuek bai. Handiek pasa genduzen eh!. Gerrie pasaute gero, atzera etxera umiek jagoten ostabere Zamudiora, Gerra ostien, niri berna guztiek eh!, berna biekan zanz bete-bete egin jatazan, sustuek edo.



# TAS-TAS IRRATIA, BAZKIDE BILA

## Mendian jarri behar duen errepikagailuak arazo ekonomiko larrian jarri du irrati librea



*Duela hamar urte sortu zen Mahatserriko irrati libre hau, (1992ko utarrilean hain zuzen). Zenbaitzuek garai hartako irrati libreetan ziharduten eta horiek ixterakoan irrati berria sortzea pentsatu zuten. Tas-Tas informazio-agentzia alternatibotik zetorren jendea zegoen baita aurreproiektu hartan. Irratigintzaren egoera hobetzeko asmoz, eta utopian murgilduz, irrati idealaren proiektua orrazten hasi ziren. Gaur egun arte.*

*Testua: Iratxe Ruiz / Argazkiak: Iñigo Azkona*

Irrati honek Nerbioi itsasadarreko frekuentziak bete zituzten irrati libreen lekukoa jaso zuen. Ganguren menditik Serantseraraino frekuentzi modulatuako 97 Mhz-ak 'okupatzen' dituen irrati egitasmoa dugu Tas-Tas. Prim kalean duten egoitzako antenatik emititzen eman dituzte lehenengo hamar urteak, baina azken bolada honetan arazoak sortu zaizkie. Emititzen duten potentziaren inguruko kexak hasi dira, instituzio batek denuntzia jarri baitie. Antena kendu beharrean aurkitzen dira orain.

Egon, hiru norabideko bidegurutzean daude Tas-Tasekoak. Hamar urteko proiektua bertan behera uztea eta emisioekin amaitzea litzateke lehenengoa. Noski, bide horretatik abiatzea azkeneko pausoa izango zen.

Beste aukera potentzia jaitea litzateke, sortzen dituzten interferentziak amaitu arte. Bide hori aukeratzeko hedapenaren murrizpena ekarriko luke.

### AZKEN AUKERA, KANPAINA

Aipatutako bi bide horiek irrati kolektibo moduan desageraraziko lukete. Beraz, azkeneko bidean barrena abiatu behar: mendi tontorrean errepikagailua jartzea, hain zuzen. Honen aurrean arazo ekonomikoa azaltzen zaie Tas-Taseko-ei. Irratian errepikagailuaren proiektua aspalditik zeukaten pentsatuta, irratiaren geroa izango zela sumatzen baitzuten. Errepikagailuak momentuan uhinak heltzen ez diren tokie-

tara helaraztea lortuko zuen. Baliteke Galdakao pasa eta Zornotzaraino uhinak heltzea!

Aldeko zerbait ekarriko luke beraz, hainbeste diru bertan gastatzeak. Emisio eremuaz gainera kalitatea hobea izango zen errepikagailuarekin. Bazkide moduan funtzionatzen du irrati honek. Momentuan 80 bat kide dira eta bakoitzak kuota bat jartzen du irratiaren baliabide teknologikoetan inbertitzen dena gehien bat. Errepikagailua erosteko lortu behar duten diru kopurua beraien ahalmenetik urrun dago, horregatik bazkideak lortzeko nahian dabilta.

Bazkide kanpaina hasi zenetik 60 bat bazkide berrir laguntza jaso dute. 'Gara' eta 'Euskaldunon Egunkaria' kasetetako orrietan ere oihartzuna izan du mahatserriko irratiak.

Une honetan zailtasun ekonomiko hori duten arren, 24 orduko emisioa eskaintzea lortu berri dute, teknologia digital berriak Tas-Tasera heldu dira eta. Izan ere, Euskal Herriko hainbat irratiarekin batera egitasmo komuna egitear daude. Egitasmoan euskara da nagusi. Nahiz eta Tas-Tasen programazioaren ehuneko handia erdarazkoa izan, euskararen aldeko apustuan dabilta lanean. Gauzak honela, irrati bakoitzak bere programak egingo ditu eta beste guztiak horiek emititzeko aukera izango dute.

### TAS-TAS EN HASI-MASIAK

Tas-Tasen hasierako pausoak eman zituztenen gogoak ez

ziren eten inoiz. Garai hartan emititzen amaitu zuten irrati libreetatik zetorren jendea, baita gaurko irratiaren izen bera zuen informazio agentziatik ere. Denbora joan ahala, honako ondorio honetara heldu ziren: lehenagoko irratiek uhinetan egote hutsaz ahalmen handiak zituztela erakutsia zutela. Hala ere, ez zuten asmatu benetako irratia izaten, ezta libreak ere. Irratiok ez zuten maila nahikorik lortu, salbuespenak salbuespen, antolakuntza eta baliabide ezagatik. Irrati libreen eragile gehienak elkarte sozio-politikoetatik zetozen, eta irratiagintzan jarduteko ahalegin handiak eginda ere, irratiak jarraipenik izan zezan ez ziren funtzionamendurako era berriak lortu.

Proiektuan hasi zirenen aburuz irrati librea partehartzaila eta autokudeatzen dena da. Honek esan nahi du partaide guztiak bere mantentzean eta, hastapenetatik, garapen osoan esku hartzen dutela, salbuespen barik.

Baina zeintzuk dira irrati libreak? Komunikazioa eguneroko esparrura ekarri eta honen monopolio eta zentralizazioaren aurka borroka egitearen beharrarengatik sortzen direnak, alegia. Betidanik komunikazio medioetan islarik izan ez duten sektore herrikoiek bere adierazpen bideak sortzeko duten beharretik garatzen dira, Tas-Tasekoen hitzetan.

Tas-Tas beste irratietatik bereizten duen ezaugarrien artean, hedatzen den mezua eraldatu nahi edo ahal lukeen ezein presio talde politiko, erlijioso edota ekonomikorengandik aske dela litzateke. Librea, adierazpen askatasuna emisio askatasun bezala itzultzen dutelako, beraien ideiak adierazteko eskura duten baliabideen erabilera besterik egiten ez dutelako. Bestetik librea da, irratiaren antolakuntza ez hierarkikoa delako eta antiautoritarioa delako. Helburu merkantilistik ez dutelako da libre baita. Tas-Tas definitzerakoan beste ezaugarria legoke goraiatzeko: euskal irrati delako. Euskal Herri aske eta solidario baten askapen mugimenduan murgildurik baitaude. Euskal nortasuna, kultura, hizkuntza, ohitura eta etorkizunaren alde azaltzen dira.


Orain arteko irratiagintzarekin amaitu eta bestelakoa sustatu nahi dute, bai forma baita eduki aldetik ere. Ezkututzen ala eraldatzen diren informazioak eskaini, ahotsik ez dutenei uhinak luzatu, eztabaida bultzatu, gizarte mugimendu aurrerakoien euskarri izan eta gertaeren ikuspegi anitzaz ohararaztea dute besteak beste helburutzat.



Beraien programazioak arrunkeiatik ihes egiten du, edo behintzat hori lortzeaz arduratzen dira. Etika eta estetika, edukia eta entretenimendua, zerbitzua eta gozamina aldi berean eskaini nahi dute. Kalitatea -programa landuak, etengabeko formakuntza, baliabide tekniko egokiak- eta espermentazioa -formula berrien bilaketa, gai alternatiboak- dira programazioaren zutoihalak. Eguneroko bizitzan sor daitezkeen ideiak, sentipenak eta jarrerak defenditzen dituzte: zentzuen berpiztzenarekiko konpromisoa, barrea, lasaitasuna, elkar ulertzea. Elementu negatiboaren aurka agertzen dira kontraz: botere nahia, gero eta gehiago edukitzearen nahia, gehiegizko

kontsumoaren aurka, pertsonetik eta herrietatik esploatazioa eta edozein autoritarismoaren aurka dihardute. Modu honetan, ahul, kaltetu eta ez ulertuarekiko konpromisoa dute. Natura eta izaki biziak babestu eta errespetatzen dituzte. Aipatu moduan, gertaeren azalpenetan, ahalik eta objektiboan izaten saiatzen dira, sinesgarritasuna lortzeko eta propaganda susmoa ekiditeko.

Tas-Tasen moduko irrati libre batek bilatzen duena laburbilduz honakoa litzateke: elkartasuna, justizia, berdintasuna, demokrazia, askatasuna, partehartzea, kritikotasuna eta sormena. Adierazpen askatasunean jarduten dute, eztabaida eta iritzien elkartrukea suspertuz beraien ideiei eutsiz. Modu honetan, mintzaira sexista, naturaren suntsipena edo jarrera zapaltzaileak beraiengandik at mantendu nahi dute.



# ASAPALA

## KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:  
 Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
 Tfnoa. : 944735448  
 E-posta: [asapala@eusnet.org](mailto:asapala@eusnet.org)




# Artxandako trikuharriak

## Iturritxoalde eta Ganguren mendien artean bost monumentu megalitiko dago

*Orain dela 5.000 urte bazen gure bazterretan bizi zen gizajendea. Artzainak ziren eta oraindik ez ei zeukaten metalaren berri. Haien arrastoak non-nahi topa daitezke Artxanda mendiaren bizkarrean. Hantxe daude, esate baterako, euren hilobiak, tumuluez estalitako trikuharriak alegia. Trikuharriok apalak dira, txiki-txikiak, eta eraso ugari pairatu izan dute azken urteotan. Hala ere, han diraute. Lehen maha-tsorrien lekukotasuna dira.*

**Testua: J. Larrazabal**  
**Argazkiak: Iñigo Azkona**



Artxanda mendilerroan, Iturritxoalde - Avril- eta Ganguren mendien artean, hainbat monumentu dago. Harriduraz irakurriko ditu lerrook hortik sarritan paseoan ibili den askok. Baina hala da. Monumentu megalitikoak dira. Orain dela 5.000 bat urte hemen bizi zen gizajendeak eraikitakoak.

Egirletatik (Santo Domingotik) hasita eta Ganguren arte bost dira hilobi megalitikoak. Horiatarik hiru 'Irumugarrieta' mendi lepoan daude. Beste bat, 'Gaztelukolanda', Iturritxualde mendi tontorraren inguruan dago. Azkena, 'Axpuru', Gal-dakaoko eremuan dago.

Izatez, Artxandako goialdea da hori dena. Iturritxualde mendia 380 metro altu da, apur bat behe-rago dago 'Gaztelukolanda'ko tumulua eta 'Irumugarrieta'koak, aldiz, Iturritxualde eta Ganguren artean dagoen muinorik altuenean dautza, 375 metroko altueran. Trikuharriok aspaldian deskubritu zituzten. Jose Saratzagak 1966an 'Irumugarrieta I' eta 'Irumugarrieta II' aurkitu zituen. Hirugarrena Pedro Maria eta Javier Gorrotxategik topatu zuten 1973an. Urte horretan bertan Gorrotxategitarrek 'Gaztelukolanda' aurkitu zuten.

Hilobiok ez dira orduko bizilagunen aztarna bakarra Artxandan. Beste zazpi tokitan garai hartako jardunen arrastoak agertu dira.

**ZELAKO TRIKUHARRIAK**  
Estilo berekoak dira Artxandako hilobiok. Tumuluak dira, hau da harriz eta lurrez egindako metak, esfera erdiko itxurakoak. Altuera metro erdikoa izaten da eta formari dagokionez, biribilak edo esfera erdiaren antzekoak dira. Zabaleraz, zortzi eta hamalau metro arteko diametroak neurtu dituzte orain arte.

Erdian, harri zabalez osatutako kamara bat ego-kitzen zuten. Harriak, zutunik jarrita, elkarri ematen



Ezkerreko orrialdean, 'Gaztelukolanda'ko trikuharria. Eskuinean, 'Irumugarrieta' landako tumuluetako bat.

diote sostengua, lauki bat osatuaz. Kamara hori lur eta harri azpian ezkutatuta gelditzen zen. Espazio horretan hildakoaren gorpua utzi-ko zutela pentsatzen dute arkeologoek. Egindako ikerketetako datazioen arabera, trikuharririk zaharrenak Kristo aurreko 2800-3000 urtekoak izan daitezke.

'Gaztelukolanda'koa apur bat ezberdina da. Tumulua altuagoa da -metro bat- eta haren erdian hutsu-nea dago.

Trikuharrietako batzuetan indusketak egin dira azken urteotan. Horrela, 1988an 'Irumugarrieta I' izenekoan hasi ziren lurra aztertzen. Bertan 50en bat lanabes aurkitu zituzten. Besteak beste, jotailuak, hegats txikiz egindako gezi puntak, karrakailuak eta mikrolito geometrikoak. Azken horiek gure egunetara heldu ez

**GOIAN S.C.L.**

**LAN BERTIKALAK**

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

**ANDAMIO BARIK**

**TELEFONOAK:**

**630 08 09 38**

**659 45 16 22**

**Bikoitz**

ARLOPAK ★  
ZILARRA C  
OPARIAK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU  
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO  
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

**MESÓN**

**URETXE**

Santutxuko poteo gunean





daude, monumentuak itxuraldatuta agertzen dira gaur egun eta erasoak ere ez dira faltatu. 'Irumugarrieta II' ikertzen ari ziren bitartean, 1992an, baten bat barrura sartu eta harri zabaletako bat eraso zuen.

Arazoak ez dira horiek bakarrik izan. Duela hogeita bat urte pinuak landatzeko asmoz induskailuak sartu ziren Irumugarrieta aldean. Ondorioz, 'Irumugarrieta II' aztarnategia nahikoa kalte-tuta eta desitxuratuta gelditu zen. Haren gainetik basabide bat egin zuten.

Bestalde, inguru horietan azken bi mendeotan ez dira gutxi izan gatazka arma-tuak. Horregatik ugari dira

diren gaiez hornituta tresnak osatzen zituzten. Apaingarriak ere ez ziren falta izan. Lepoko biren ale bana eta harri berdezko zintzilikarioa, esate baterako.

Indusketak egin ostean trikuharriok atzera be osatu zituzten, jatorrizko itxura eman nahian. Hesi batez inguratu ere egin zuten 'Irumugarrieta' babes-teko asmoz. Hala ere, berriz ere harriak nahastuta

bertan agertutako balak, bala-zorroak eta antzeko-ak. Hala karlistada bietan nola, batez ere, 1937an, mendi eta egi horietan gatazka latzak gertatu ziren eta. Arantza Zubizarreta arkeologoak 'Irumugarrieta II'ko trikuharri gaineko bere azterlan batean zehaztu zuenez, 'Irumugarrietan bertan 'gudarien' hilobiak zeudela esan ziguten bertatik ibili ohi ziren batzuek'.

**LEHEN MAHATSORRIAK**

Artxandako trikuharriak ikertzen ibili diren arkeologoek Neolito garaiko azken alderdian kokatu dituzte. Garai hartan, diote, artzaintzan hasiak ziren artean ehiztari eta fruitu biltzaile baino ez ziren gizataldeak. Populazioa hazita zegoen eta, artzain ibiltzearen ondorioz, mendi lepoetan zein tontorretan jende asko ibili ohi zen.

Gizatalde horiek Europa mendebaldean zabalduko kultura megalitikoaren eragina jaso zuten. Artzain haiek euren hildakoak ehorzteko tumuluez estalitako trikuharriak altxatu zituzten. Eta non? Eurak sarrien ibiltzen ziren parajeetan: mendi gailurren inguruetan, lepo eta pasabide ibilietan.

Hauek izan ziren gurean gelditutako lehenengo giza aztarnak. Historiagile batzuen iritziz, orduantxe hasi ziren pertsonak toki zehatzei lotzen eta, ondorioz, 'lurraldetasuna' kontzeptua sortu ere orduan sortuko zen. Hala ere, gizatalde horiek, esan bezala, gaur egun Galdakao eta Bilbao (Begoña) diren eremuetan bizi ziren.

Urte luzetan egon ziren goiko bazter haietan artzain. Baina gure inguruetako hurrengo giza aztarnak, askoz be berriagoak, Malmasin mendiko 'kastr'koak dira. Guk Artxandan ibilitakoei lehen mahatsorriak esan diegu, jakin badakigun arren, oraindik ez zirela nekazaritzan hasita. Baina ze arraio! Gutako gehienak gaur egun ere ez, ezta?

**Garraioak**



Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33

**Sugea taberna**



Iturriaga, 92 Santutxu

**BASTERTXU**




**TABERNA**  
Ricardo Bastida plaza

E R B E T A N

e l k a r r i z k e t a

**Josune Fontetxea**  
"Bitartekariarena oso lan zaila da"



Josune Fontetxaren bizitzak aldaketa handia jo zuen duela bederatzita urte, Elkarriz sortzeko ahaleaginean murgiltzea erabaki zuenean. Handik gutxira Santutxuko etxeko andre horrek prentsaurrekoak ematen zituen Jonan Fernandezen ondoan euskal gatazka politikoaren gainean. Bost urtez Elkarriren 'Tailer Iraunkorrea' eta Bizkaiko arduradun gisa jardun ostean gaur egun oinarriko elkarrizkidea da. Bere eskarmen-tuaz eta gaur egun abian den Bake Konferentziaz berba egin digu.

Testua: Hektor Ortega  
Argazkiak: Iñigo Azkona

D A K A R K A I



**Elkarrin, hasieratik bertatik zaude, ezta?**

Bai, hala da. Bederatzi urte dira Elkarrin sortu zela eta hasiera-hasieratik hor egon nintzen.

**Ba zenuen eskarmenturik gizarte mugimenduetan?**

Bai. Beti egon naiz. Batean edo bestean beti egon naiz konpromisoarekin lotuta. Politikagintzan, Atxurin bizi nintzenean auzo elkarteetan, Lemoizko zentral nuklearraren kontrako kanpainetan...

**Zerk bultzatu zintuen Elkarrin sartzera?**

Nire ardua zen zer edo zer egitea elkarrizketaren eta akordioaren bidez bakea eta justizia lortzeko. Horregatik, Elkarrin jaio zenean nik sentitu nuen horixe bera zela nire pentsamendua. Nire pentsaera Elkarrin gauzatu ikusi nuen. Elkarrin jaio baino lehen urduri nengoen. Ez nekien zer egin ahal zen gure gatazkari bestelako irtenbiderik emateko. Horregatik, oso pozik hartu nuen Elkarriren jaiotza-ren albistea.

**Ze motako esperientzia izan da zuretzat?**

Oso inportantea. Pertsona gisa, batetik, eta ikuspegi globaletik, bestetik, oso garrantzitsua. Bertan topatu ditudan kide gehienak ni baino gazteagoak ziren. Horregatik ez zeramaten 'motxila'rik aldean, barrutik libreak zirela esan nahi dut. Lagun handiak egin ditut, bai.

**Behin Elkarrin sartuta, ze ibilbide egin duzu erakunde barruan?**

Sartu eta berehala, Tailer Iraunkorren hasi nintzen. Lehenengo momentuetan berrehunen bat lagun izan ginen Elkarrin abian jarri genuenok. Jende gutxi ginen, beraz. Horregatik lehenengo momentuan nire kideek esan zidaten, 'Josune, zu Elkarrin buru belarri lan egiteko prest zaude eta guk zure beharra daukagu'. Eta bat-batean, konturatu gabe, hor ikusi nuen nire burua, Elkarriko Tailer Iraunkorren. Astean behin Tolosara joaten ginen eta han ematen genuen hiruretatik gaueko hamarrak arte. Eta konturatu gabe hasi ginen ardurak hartzen. Eta bat-batean ardua itzelak hartuta ikusi nuen nire burua.

**Aldaketa handia izango zen zuretzat, ezta?**

Gehiegi, benetan. Oso esperientzia gogorra. Baina ona ere. Elkarrin zebilen jende tipoa hogeita hamar urtekoa zen, gehien-gehiena Leitzarango autobiaren aurkako borrokatik zetorrena, langile finak eta haiekin Tailer Iraunkorren lau urte eta piko eman nuen. Esate baterako, euskararentzat pizgarria izan zen. Nik lehendik euskaltegian ibilia nintzen, baina badakizu, euskaldun berri betirako. Eta Elkarrin jende gehiena euskalduna zenez, batzarrak euskaraz egiten ziren eta horregatik nire euskara maila

hobetu behar izan nuen. Oraindik ere hor nabil euskara ikasten. Baina orokorrean oso esperientzia serioa izan zen. Nire barne erraiak hunkitu zizkidan. Bitartekari izatea oso zaila da. Bitartekaria erdian egon behar du eta hori zaila da, benetan. Bakea eta justizia lortzeko elkarrizketa eta akordioa dira bidea, baina denon artean. Bestela, ez dago irtenbiderik.

**Telebista eta kazetari aurrean azaltzea ere tokatu zitzaizun. Zelan moldatu zinen?**

Kontu gogorra da, bai. Jonan Fernandezekin agertu nintzen batzutan eta garai haietan kazetariak galdera gaiztoak egiten zituzten behin eta berriz. Zaila zen, benetan. Dena dela, nik ikusi dudana izan da jende gazteak ez daukala guk beste prejuziorik. Aukera eman zidaten, pentsatuta nire adineko emakumeek bakailao lapikoa egitea ez ezik beste gauza asko ere egin genitzakeela. Hor ikusi nuen nik beste ardua batzuk har nitzakeela. Lehenengoz aukera hori eduki nuen. Ordenagailuan jarduteko, ponentzia bateko emendakinak egiteko... ez zuten prejuziorik izan nigan konfiantza jartzerakoan. Hori itzela izan da nire autoestimarako. Eta hor ibili nintzen, esate baterako, ordenagailuan ikasten 'Bagabiltza'ren ikastaro batean...

**'Tailer Iraunkorren' zelan egiten zenuen lan? Arlo zehatz baten ardua zenuen kan?**

Bai, ni Bizkaiko arduraduna nintzen. Bizkaiko herri eta auzoetako tailer guztiak nire inguruan zeuden. Antolatzaile onak dira Elkarriko kideak, bai.

**Lehenengo Bake Konferentzia, Carlton**

**hotelekoa, zu Bizkaiko arduraduna zinela izan zen. Zer oroitzen daukazu?**

Oso inozente hartu nuen, bakea eta justizia lortzea errazagoa izango zela pentsatzen nuen eta. Esperientzia, berez, polita izan zen, baina fruta ondu barik zegoen oraindik. Gainera, hortik ikasi genuen eta orain bigarren bake konferentzia beste modu batez egiten ari da. Orduan nahiko modu publikoan egin zen eta orain 'sukalde lan' handiagoaz prestatzen ari da.

**Bost urte geroago 'Tailer Iraunkorra' utzi zenuen...**

Ordurako jende gazte ondo prestatuta sartu zela ikusi nuen. Hasieran Elkarrin konfiantza ematea

jende askoren begien aurrean oso gauza zaila izan zen. Batzuentzat 'ETAren aurpegi goxoa' zen eta beste batzuentzat 'EAIren aurpegi iraultzaileena' zen. Baina ordurako ni baino askoz ere prestatuago zeudenak barruan zeuden eta 'alternatiba' emateko tenorea heldu zen. Gainera, lehenengo ilobak heldu zitzaizkidan eta nire afiziorik handiena nire sendia denez, kargua uztea eta familiarentzat denbora gehiago edukitzea erabaki nuen. Bi urte eman nituen Bizkaiko Tailer Probintzian eta orain Zazpi Kaleetako Tailerren baino ez nago.

**Oso aldatuta dago hasierako Elkarrin hura eta gaur egunekoak?**

Gure printzipioak berdin-berdin mantentzen dira.







Gure oinarriak dira giza eskubideak, hala banaka-koak nola talde mailakoak. Eta bidea, elkarrizketa, akordioa eta kontsulta soziala. Hori gure lehen lema da. Duela bederatzirte urte eta orain. Elkarrizketa da gure lehenengo oinarria. Eta giza eskubideen defentsa da gure helburua. Guztionak, guztiak. Hori orduan hala zen eta horrelaxe da gaur egun.

**Orain Bake Konferentziarekin zabilzate. Zertan da momentu honetan?**

Ondo doa, ondo doa. Arduradun guztiak euren lana egiten ari dira. Zortzi moderatzaile dago eta bakoitzak talde baten ardura dauka. Bakoitzak dokumentu bat prestatzen du eta euren helmuga eta printzipioak ezartzen ditu. Helburua da denok bere egiteko moduko agiri bat osatzea da. PP izan ezik alder-

di guztietako ordezkariak daude eta pozik gaude egiten ari diren ahaleginekin.

**Orduan helburua agiri bat lortzea da?**

Bai, orri bat, folio bat, horrekin nahikoa izan daiteke, denek bat egiten duten puntu batzuk jasotzeko.

**Eta ondoren?**

Gero orri horretan dagoena indarrean jarri beharko da.

**Orain arte ikusitakoarekin, akordio hori lortu dela pentsatzen duzue?**

Orain artekoa kontuan hartuta, baietz ematen du. Baina triumfalista ere ezin gaitezke izan. Oraingoz ondo doa, hori da seguru esan dezakeguna.

### GALDERA LABURRAK

**Film bat:** 'Casablanca'.

**Liburu bat:** 'La casa de los espíritus', Isabel Allenderena.

**Izen bat:** Gehiegi da bakarra eskatzea, hainbat maitasun daukadala kontuan hartuta.

**Kanta bat:** Benito Lertxundiren edozein.

**Ianari bat:** Inddaba gorriak lehenengo eta legatza saltsa berdean gero.

**Toki bat:** Axpe-Marzana (Atxondo).

**Mendia ala hondartza?** Biak

**Amets bat:** Euskal Herriak bakea lortzea.



ASIER  
(SANTUTXU)

NI CASTRORA JOANGO NAIZ. HONDARTZARA JOANGO NAIZ. BAINA, BUENO, GURASOEKIN JOAN BEHAR DUDALAKO



IRATXE  
(TXURDINAGA)

NIRE USTEZ, HONDARTZA DAGOEN TOKI BAT, PAPERIK GABE, ESTRESIK GABE, ARAZORIK GABE, AUTORIK GABE,... BILBOTIK KANPO, BAI.



EIDER  
(SANTUTXU)

GURASORENGANDIK APARTE EGON AHAL GAREN TOKI BATEAN. GU BAKARRIK, LAGUNEKIN ETA GURE KONTURA.



IRATXE  
(SANTUTXU)

NIK KANPINA NAHI DUT, AHAL DELA KOSTALDEKO HERRIREN BATEAN.



JONATHAN  
(SANTUTXU)

NI MALAGARA JOANGO NAIZ. ETA EZIN BADUT, BENALMADENARA.



RUBEN  
(TXURDINAGA)

NI BENIDORRERA JOANGO NAIZ. EDO BESTELA BENALMADENA. HONDARTZA ETA EGUZKIA NAHI DUT.



SAIOA  
(TXURDINAGA)

NIK ELORRIORA JOAN NAHI NUEN, BAINA EZIN BADUT HORTIK KANPIN BATERA JOAN NAHIKO NUKE, MUNDAKARA ESATE BATERAKO.



IRATI  
(TXURDINAGA)

ELORRIORA JOATEKO ASMOA NEUKAN BAINA EZIN IZANGO DUT. KOSTA ALDERA JOANGO GARA KANPIN DENDA HARTUTA.



### Apirilaren 15ean aldatuko da TAO araudia

#### Bilbo erdian larunbatetan ere indarrean egongo da eta aparkalekuak hiru kolorekoak izango dira

Apirilaren 15ean Bilboko Udalak indarrean jarriko du TAO (Trafikoa arautzeko ordenantza) araudi berria. Aldaketarik handienak hiru

dira: Bilbo erdian larunbatetan ere TAO egongo da, hiru aparkaleku mota egokituko dituzte eta ordutegia luzatuko dute.

Apirilaren 2tik aurrera Bilboko Udalaren Zirkulazio eta Garraio sailak parkimetro berriak jarriko ditu kaleetan. Behin makina zahar guztiak kenduta eta berriak prest jarrita, apirilaren 15ean indarrean hasiko da araudi berria. Lehenengo aldaketa nagusia ordutegiari dagokio, luzatu egingo da eta. Goizez bederatzietatik ordu bata eta erdiak arte segituko du baina arratsaldez hiruretan hasiko da eta zortziak arte iraungo du.

Bestalde, larunbatetan ere TAO ordaindu behar da Bilbo erdiko hainbat tokitan. Udal arduradunen asmoen arabera, Abandon, Indautxun, Zazpi Kaleak eta Deustuko zati batean zapatuetan TAO indarrean egongo da. Merkataritza alderdiak direla argudiatuz, Bilboko Udalak larunbatetan inguru horietan sortu ohi diren aparkatzeko arazoak saihestu gura ditu.

Hirugarren aldaketa handia aparkalekuei dagokie. Orain arte TAO toki gehienak urdin kolorekoak izan dira. Kolore hori mantenduko dute eta bertan inguruetakoz bizila-



#### PREZIOAK:

- 30 minutu: 0,37 euro.
- Ordubete: 0,84 euro.
- 90 minutu: 1,34 euro.
- Ordu bi: 2,10 euro.
- Hiru ordu: 4,10 euro.

#### KOLOREAK ZERTAN DIREN

##### ALDERDI URDINA

**Bertakoak:** Autoan TAO txartela utzita, nahi beste denboraz utzi dezakete autoa.

**Kanpotarrak:** Gehienez lau orduz laga dezakete autoa. Gero hiru ordu pasa beharko dira atzera ere alderdi horretan aparkatzeko.

##### ALDERDI LARANJA

**Bertakoak:** Eurentzat bakarrik. Txartelaz identifikatu beharko dute.

**Kanpotarrak:** Debekatuta daukate bertan autoa uztea.

##### ALDERDI MARROIA

**Bertakoak:** Gehienez ordu biz aparkatu ahaliko dute. Txartela parkimetroan sartu beharko dute. Berriz ere autoa bertan uzteko hiru ordu pasatu beharko dira.

**Kanpotarrak:** Gehienez ordu biz. Ostera ere bertan aparkatzeko hiru ordu pasatu beharko dira.

gunek TAO txartela edukiez gero arazo barik aparkatuko dute. Kanpotarrek ere, gehienez lau orduz. Baina urdinaren ondoan beste kolore biz margotuko dituzte aparkalekuak. Laranja pintatutakoak bertan bizi direnentzako baino ez dira izango. Kanpotarrek ezin izango dute plaza horietan autoa utzi.

Marroiz margotutakoetan, ostera, bertan bizi direnek ordu biz baino ezin izango dute autoa laga. Kanpotarrek ere berdin, ordu bi gehienez.

#### PORTZENTAJEAK

Kale batean espalo bateko aparkalekuak kolore urdindunak izan daitezke eta pareko espaloikoak laranja edo marroindunak. Bilboko Udalak oraindik ez du zehaztu tokian tokiko banaketa. Hala ere, Bilbo erdian, kolore laranja -bertakoen-tzat baino ez- %5 edo %10 izango dira eta gehienak kolore marroikoak izango dira. Auzoetan, ostera, bertakoen-tzako plazak %30 izango dira eta bisitarien-tzat %5 baino ez da gordeko.

### Mahatserritik Sestaora metroz, hogeitun minutu

#### Apirilaren 13an Ezkerraldeko lerroaren lehen zatia zerbitzuan jarriko dute

Datorren apirilaren 13an metroaren Ezkerraldeko lerroaren lehen zatia indarrean sartuko da. Sestaoko Urbinagatik Boluetaraino joan ahaliko da hogeitun minututan. Zerbitzu berriak orain arte oso lotura txarra eduki duten alderdiak harremanetan jarriko

ditu. Gainera, San Ignazio eta Bolueta artean ibiliko diren metroen sarritasuna areagotuko da. Orain arte bost minuturokoak izan badira, lerro berria hasi ostean bi minutu eta erdiro metro bat etorriko da.

Apirilaren 13an metroak bost geltoki berri edukiko ditu. Lau Barakaldon eta bakarra Sestaon. Azken hori, Urbinaga, bigarren lerroaren behin-behineko amaiera izango da. Behin-behinekoa egunen batean metroa Portugaleta eta Santurtzira ere ailegatuko da eta. Beste lau geltokiak Gurutzeta (Cruces), Antsio, Barakaldo eta Bagatza izango dira.

Bigarren lerrotik datozen metroak zuzenean sartuko dira lehenengo lerroan San Ignazioko geltokian. Eta hortik aurrera Boluetaraino iritsiko dira. Ondorioz, Boluetako biztanle batek Gurutzetako ospitalera joan nahi badu, Boluetako geltokian 'Urbinaga'ra doan metroa hartu eta zuzenean Gurutzetara helduko da, transbordorik egin beharrik gabe.

Bigarren lerroak 5,8 kilometroko ibilbidea egingo du. Lehenengo kalkuluen arabera, egunean 60.000 bidaiari berri ekarriko ditu, gaur egun egunero ibiltzen diren 253.000ekin batera. Baina erabiltzaile gehiago ekarriko baditu ere, bigarren lerroaren ondorioetako bat oso onuragarria izango da metroa Bilbo barruan ibiltzeko nahi dutenentzat. Izan ere, lehen lerroko trenak orain arte bezala segituko duten bitartean, bigarren lerrokoak ere sartuko dira. Horrela, tren bat helduko da Areetatik eta hurrengoa Urbinagatik.



Ondorioz, Bilbon, San Ignazio eta Bolueta artean, tren sarritasunak areagotuko dira. Horregatik, aipatu bi geltokien artean trenak orain arte bost minutu ibili badira, apirilaren 13tik aurrera bi minutu eta erdiro azalduko dira. Amaituko dira, beraz, metroa ez galtzeko korrikaldiak.

**INMOBILIARIA**

**Gelaya**

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92  
Tfona. 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

**ADI**

**ASESORIA**

LEGAL - CONTABLE - LABORAL - MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**

**PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!**

**SAAK**

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K



## Maiatzaren 24an Artxandako tunelak zabalduko dituzte

Salbe zubian trafikoa oztopatuko dute tunelen eta Maurice Ravel kalearen arteko loturak egiteko

*Datorren hilean, maiatzaren 24an, Artxandako tunelak zabalduko dituzte. Egun horretatik aurrera autoek Txorierrri-Salbe-Deustu hirukia lur azpitik egin ahal izango dute. Tunel berrietatik Bilboko sartu-irtenak erraztu nahi*

*dituzte, Enekuri edo Egirleta (Santo Domingo) ganetan sortu ohi diren auto iladak saihesteko asmoz. Horretarako, baina, ordaindu beharko da. Tarifa garestiena 1,2 eurokoa izango da.*

Bizkaiko Ahaldu Nagusia Josu Bergarak martxoaren 6an obrak bisitatu eta orduantxe iragarri zuen. Artxandako tunelak datorren maiatzaren 24an irekiko dituzte. Tunelak hiru dira eta Txorierrri-Ugasko-Salbe hirukia osatzen dute.

Obrak guztira 93 milioi euro behar izan ditu. Dirutza hori enpresa eraikitzaileak ipini du. Orain tuneletan barrena ibiliko diren autoetako gidariak ordaindu beharreko bide-

sariak inbertsio hori errekuperatu eta etekinak atera gura ditu enpresak.

Auto gidariak hala Salbe-Txorierrri nola Ugasko-Txorierrri bide zatiak egiteko ordaindu beharko dute. Berdin joan edo etorri. Tarifak ordutegiaren eta egunen arabera aldatuko dira. Garestiena, esan legez, 1,2 eurokoa izango da. Bidesaririk eskatuko ez duen zati bakarria Salbe eta Ugasko bitartekoa izango da. Artxanda mendiko egitik abiatzen da, Deustuko Unibertsitateko atzealdetik batzutan lur azpitik eta beste batzutan agerian. Salbetik hasita, auto gidaria Ugaskora helduko da. Bertatik Txorierrri edo Agirre Lehendakariaren etorbidera atera ahalko da.




### TRAFIKO ETENAK SALBE ALDEAN

Artxandako tunelak zerbitzuan jarri baino lehen, falta diren hilabete biotan obrak izango dira Salbe zubiaren eta Maurice Ravel etorbidearen hasieraren inguruan. Izan ere, bide bi horiek Artxandako tunelekin lotzeko lanak egiteko daude oraindik. Horien ondorioz, trafiko etenak egin beharko dira.

Lehenak martxoaren amaieran hasi ziren. Bi norabideetako karril azkarrenak itxi egin zituzten. Helburua, errepide erdiko zatia kentzea. Behin hori eginda, bestelako mozketak egin beharko dituzte. Apirilaren 2tik aurrera, esate baterako, Bilbora jaisteko bideko karril biak itxia egongo da. Igotzen diren karriletatik bat behera joateko atonduko dute. Apirilaren erditik aurrera aldaketa berri bat egingo da eta beste horrenbeste gertatuko da maiatzaren 13tik aurrera.

Egiteko dauden lanen artean, espaloiak egokitzea eta Begoñarantz igotzen den norabidean zarata biguntzeko babesak jartzea falta da.



Santo Rosario, 1 (Santutxu)  
Tlf.: 94 473 10 65



Txakoli Ategorri, 6. Tfoa: 412 48 59

## Igogailu berri bat Santutxurako

Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Prim eta Barandiaran artean igogailua egin gura dute

Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Garraio sailak indarrak batu dituzte Prim kaleko goialdearen eta Barandiaran kalearen artean igogailua egiteko. Horrela, Santutxurekiko komunikazioa errazteaz gain, ondo-ondoan dagoen metro geltokirako sarbidea ere esku-eskura jarriko zaie inguruetakoz biztanleei.

Bi erakundeek 250 milioi pezetako aurrekontua darabilte asmo hori gauzatu ahal izateko. Prim eta Barandiaran kaleen arteko aldea zelan saihestu hiru-lau ideia ibili dute proiektu gisa: eskailera mekanikoak -Basaurin Basozelai auzora igotzeko jarri dituztenen estiloan- edo funikular txikia, esate baterako. Azkenean, bien artean nahasketak bat egitea nahiago izan dute.

Horrela, Norman Foster arkitekto ospetsuari eman zioten diseinua egiteko ardura. Metroarena ere sortu zuen arkitekto ingelesak igogailu-funikularra diseinatu du. Makina hori gorantz artez joan beharrean gradu batzuk makurtuta igoko da.

Egunokaz Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak tratuetan dabilta igogailu berriaren kontrola metroaren Santutxuko geltokiak bere gain har dezan. Horrela, bidaiariei segurtasun gehiago eskainiko zaio.

### DOHAIN

Igogailu berri hori erabiliko duenak ez du ezer ordaindu beharko. Horixe ere ezaugarri berezia izango da, Bilbon ez baitago beste igogailu musutruk erabil daitekeenik.



Esate baterako, Mallonan metroak daukanak metro txartela eskatzen du.

Dena dela, proiektua publiko egin bada ere, oraindik ez da jakinarazi egiteko epeak zeintzuk diren. Besteak beste, proiektuak dituen zailtasun eta eragozpenak oraindik konpondu barik daude. Gainera, udal arduradunen asmoa ei da igogailua inguruan dagoen Dolaretxe alderdiaren urbanizazioarekin lotzea.

Igogailua egiten bada, horixe mahatserrian dagoen bosgarren igogailu publikoak izango da. Begoñabarran Salboko igogailua dago, Mallonan beste bi daude -Udalarena eta metroarena- eta, azkenik, Solokoetxekoa ere hor inguruan dago.

## Zabalik da Iturriagako aparkalekuan toki bat eskatzeko epea

Joandako martxoaren 20an zabaldu zen Iturriaga kalearen inguruan bizi diren lagunentzat aparkaleku berriari toki bat eskatzeko epea. Guztira, 273 izango dira bertako lekuak. Eurretatik bat eskatu ahal izateko Santutxuko alderdi horretan bizi eta auto baten jabe izan behar da.

Eskaria egin gura dutenek Altair SL enpresara jo behar dute. Enpresa horrek Nafarroa kalearen 8 zenbakiko 1D pisuan dauka egoitza. Lehenengo solairuko toki bakoitza 10.250 eurotan saltzeko asmoa daukate. Bigarrenekoek 9.650 euro kostatuko dute eta hirugarren zein laugarrenekoek 8.500 euro. Prezio hauek, hala ere, nabarmen goratuko dira, hilero %1,75 igoko baitira aparkalekua zerbitzuan jarri arte.

Toki erreserba bat eginez gero, une horretantxe 901 euro ordaindu beharko da. Udalak egin duen azterketaren arabera, Iturriaga kalearen inguruetan



Santutxu eta Txurdinagako kale batzuk sartzen dira. Beraz, toki bat eskatzeko eskubidea daukatenen artean Gabriel Aresti edo Arbidea bezalako kaleetako zenbaki batzuetako bizilagunak daude.



# KALITATEAREN LEGEA EDO DBHREN ERREFORMA ZERTAN DEN

*Lau ibilbide, kurtso bera birritan egitea eta batxilergoaren azterketa dira nobedade nagusiak*



PPren gobernuak Kalitatearen legea zehatz-mehatz zertan den jakinarazi du martxoan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren (DBH) eta Batxilergoaren erreforma horrek hiru aldaketa nagusi dakar aldean: lau ibilbide, hiru jakingai gainditu ezean ikasleak berriz ere kurtso bera egin beharko du eta batxilerra amaitutakoan azterketa orokor bat ezarriko da. Gainera, Espainiako historia eta hizkuntza beren-beregi bultzatuko dituzte. Proiektuaren kontra berbaroa entzuten da Euskal Herrian eta horren isla izan da hainba eskola eta ikastoletako arduradunek sinatutako agiria. Tartean, Mahatserriko ikastetxeak ere badira.

Iragan martxoaren 11n Pilar del Castillo ministro espainola erkidego autonomoetako Hezkuntza arduradunak batu zen Madrilan. Batzar horretan 'Irakaskuntzaren Kalitatearen Legea' zertan den azaldu zien. Handik irtendakoan, EAEko Hezkuntza sailburu Maria Anjeles Iztuetak gogor astindu zuen PPren gobernuak darabilen proiektua. Euskal Herrian beste asko izan dira harrez gero kritika zurrumbilao puztu dutenak.

Arloz arlo begiratuta, Kalitatearen legeak ez dakar aldaketa handirik Haur eta Lehen Hezkuntzan. Hizkuntza arrotza (ingeleza, frantsesa,...) hirugarren mailan hasi beharrean lehen mailara aurreratuko dute. Aldaketak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) -hamabi urte-

tik hamasei urtera- hasten dira. Batetik, DBHko lehen eta bigarren mailan hiru jakingai gainditu ezean kurtsoa berriz ere egin beharko du ikasleak. Hirugarren eta laugarren mailan, oster, bi asignatura gainditu barik nahikoa izango dira hurrengo urtea ere kurtso horretan emateko.

Hamabi urtetik aurrera, heziketa prozesuan arazo handiak dauzkaten ikasleak eta 'hizkuntza espainola behar beste ez dakiten etorkinak' beste bide batetik abiatuko dituzte. Talde hauekin metodologia berezia erabiliko dute.

Gainerakoek DBHn bertan lehen hautaketa egin beharko dute: tekniko-profesionala edo zientifiko-huma-

nistikoa. Geroago beste aukeraketa bat edukiko dute zain: norabide profesionala, zientifikoa ala humanistikoa. Horiexek izango dira, hain zuzen, batxilergoa egiteko hiru bideak. Orain arte lau ziren.

## ERREBALIDA

Behin Batxilergoko urte biak gaindituta, ikasleak Batxilergoaren Azterketa Orokorri eman beharko dio aurpegi. Antzinako errebalidaren antzekoa izango ei da eta lau aukera edukiko ditu gainditzeko. Azterketak idatziak izango dira, hizkuntza arrotzarena izan ezik. Horrek ahozko zati bat ere edukiko du. Batxiler tituluko nota ibilbide akademikoaren eta azterketa orokorraren arteko batz bestekoarena izango da.

Euskal Herrian, esan legez, berehala zabaldu da 'Kalitatearen Lege'aren aurkako harrabotsa. Martxoaren 25ean Hezkuntzako Eragileen Bilguneak agiria plazaratu zuen lege proiektu hori eta oro har PPK hezkuntza arloan darabilen asmo erreformatzailea zorrotz kritikatzeko. Euskal Herriko hainbat ikastolako eta eskolako arduradunak bat etorri ziren PPren gobernuaren legea gaitzesterakoan.

Lehenengo sinatzaileen artean gure inguruetako ikastetxe batzuetako arduradunak daude. Abusu ikastolako ikasketa buru Agurtzane Uriarte Barrena, esate baterako. Edo Karmelo ikastolako zazpi kide, tartean Karmele Aurrekoetxea zuzendaria eta Josune Barrenetxea ikasketa burua. Eta Txurdinagako Gabriel Aresti BHlko bost arduradun ere azaltzen dira agiriari sostengua eman dietenen artean. Institutuko zuzendaria Begoña Zurimendi eta ikasketa burua Maite Minguez tartean dira.

Bilgunearen idatzia babestu dutenen artean BIGE -Bizkaiko Eskola Publikoko Gurasoen Elkarte- eta Partaide -ikastola pribatuak- elkarteetako arduradunak daude. Baita lau probintzietako eskola eta ikastola publiko zein pribatuetako hainbat buru.



## HEZKUNTZA ERAGILEEN BILGUNEAREN AGIRIA

Gure kezka agertzera gatoz PPren Gobernu berriro ere inposizioaren bidetik datorkigulako Hezkuntzaren alorrera. Lehenago "Humanitateen Legea" izan zen, gero LOU, orain Lanbide Heziketaren Legea daukagu mahai gainean eta iragarri zaigu jada "Uniformizazioaren Legea", oker deitutako "Kalitatearen Legea". Beste behin ere dosifikazio mediatiko neurtuaren taktika eta partaide-tzaren itxurakeria erabili nahi dira, dagozkion legeen joraketan hezkuntza komunitateari benetako partehartze eragingarria, demokratikoa azken batean, lapurtzeko.

Baina ez gaituzte engainatuko. PPren Gobernuaren asmoetaz nahikoa dakigu zertan ari garen jakiteko, nahiz eta karta guztiak ez dizkiguten erakutsi nahi. Aznarrek argi eta gari hitz egin du gaiaz, ministroak berak baino gehiago. Zalantza bat balego, hor dauzkagu behin eta berriz Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta hezkuntza arduraduna ere, Miguel Sanz eta Jesus Laguna alegia, hezkuntzaren euskalduntzearekiko etsaitasun zaharkituarekin. Hor nonbait dabilkie PPren Gobernuak Gasteizen duen ordezkaria ere, Enrique Villar alegia, betiko iseka eta irainekin.

Gure hezkuntza komunitateari irainka, gure hezkuntza eta unibertsitate zentroi "terrorista kabi" deitu eta gure historiako belaunaldirik jantzienari "eskola porrotean murgildutako analfabetoak" esaten dienengandik gauza bakarra itxaron dezakegu: Espainiako Estatu guztirako curriculum bakarra eragin nahi duen errebalidaren inposizioa eta gure hezkuntza zentroetatik zantzu aurrerazale eta berritzaileak garbitzea; hezkuntza elitista eta sektarioa, memoria hutsean oinarritutako ikaskera bultzatuaz, ikasle azkarrak eta tontoak berriro ere, aukeren desberdintasuna haztea ikasleen artean; beste behin ere atzera hezkuntza edukietan, hizkuntza normalkuntzaren bilakabideetan, zentrozen autonomian eta hezkuntza komunitateak erabakiak hartzeko partaidetzan.

Ez esango diogu. Ez, iragarrita dauden bezalako legee. Ez, guraso, irakasle eta ikasleei, gizarte osoari azken batean, iseka eta irain egiteari. Ez, inposizioari. Ez, uniformizazioari.

Bai esango diogu, ordea, hainbeste kosta zaigun eta oraindik hainbeste joratzeko daukagun 'Guk geure Hezkuntza'ri, beti ere kontsentsu zabalaren bitartez, jarrera integratzailetik abiatuta. Guk geure Hezkuntza euskalduna, kalitatezkoa, eleanitza, gizarte mailaketaren gaitzizalea, integratzailea eta partehartzaileari. Bai esango diogu Euskal Herri osoa biltzen duen kultura esparru propioan eratu eta antolatutako Hezkuntzari.

**ZUBEROTARREKIN BAT**

**AUZOLANEAN**

*Xiberoa*

garatzen! egitasmoa

Helburua: 1.000.000 €

deitu orain:

902 33 88 66

05 59 46 13 89



# APUKO/GANEROITZ (561 M.) GURUZETA (BARAKALDO)

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

**bertan**

Justuegune, Euskalgune  
Aitiber Inuria  
Iduna Taldea

**Urzi Urrutikoetxea**  
"Mugitzen eta abertzaleak jasotzen ditut koilatsakook"

Uztatuaren harmina berriak

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

**bertan**

**Miren Agur Meabe**  
"Euskal literaturan ariztasuna eta maila altua dago"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

**bertan**

**Eladio Montiel**,  
Otxarkoagako abesbatzaren zuzendaria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

**bertan**

**Mikel Alvarez**,  
mahatsorri bat Eteresteko tontorrean

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

**bertan**

**Iñaki Agirre**,  
"Badut nortzuk txapel jantziak asperantzan"

## MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

## hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerra, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: ..... Zenbakia: .....

Herria: ..... Herrialdea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digito): .....

DOHAIN

Sinadura


Ibilbide hau Gurutzetako ospitalean bertan hasiko da. Bere ate nagusiaren aurrean dagoen kaletik, euskal eskola eta batzokia pasatuta, autobidea igaroko dugu eta bertan dagoen zubitik Basatxu auzora helduko gara. Hor urgordailu handi bat dago.

Hemendik, lehen eskumarantz eta berrogei metrotara, ezkererantz hasten da bidea. Pinudi txiki bateraino heldu ondoren, eskumarantz dagoen bidea utzi eta ezker aldekoa hartuko dugu, aldapa gogorrean Arroletza mendia (459 m.) lortu arte.

Orain eskuinerantz eta gailurreratik pinuen ondotik, beti gora eta behera ibiliz, Peñas Blancasera (463 m) helduko gara. Bidean harrizko gurutz handi bat ikusiko dugu. Hemen meategien aztarnak ikus daitezke.


Aurrerantz, eta pinudiaren ondoan azken aldapa gogorra igon eta gero, Apuko mendiko tontorra lortuko dugu (561 m.). Orain antzinako toponimiari jarraituz Ganeroitz deitzen diote.

Itzultzeko Peñas Blancas-en ezker aldean dagoen baserri bakarti bateraino abiatuko gara (Montalban izenekoa). Inguru hau gurbizta izeneko zuhaitzez beterik dago. Hemendik harrobi batera helduko gara aldats behera gogorrean. Handik Mezpelerreka ikusten da (El Regato) eta



laster bertara helduko gara. Errepide nagusitik ez ibiltzeko plazaren eta elizaren ondoan dagoen zubi batetik pasatuz, erreka-aren eskuma aldetik dagoen bidea hartuko dugu. Honek uharka osoa inguratzen du eta hortik Gorostiza auzora helduko gara. Bertan kiroldegia ikusiko dugu eta, apur bat geroago, Errekaortura (Retuerto) heldu gabe, eskuinerantz, landa bat zeharkatuz, Gurutzetara bueltatuko gara





## Anje Duhaldek bere lan berria aurkeztu zuen Sorgintxulo gaztetxean

ATERA BERRI DUEN DISKOAN  
GEORGES BRASSESEN  
HAMALAU KANTU  
EGOKITU DITU

Testua: Irene Berro Urrizelki  
Argazkiak: Iñigo Azkona

**Anje Duhalde abeslariak "Georges Brassensen kantari" izeneko lan berria aurkeztu zuen hil honen hasieran Sorgintxulo gaztetxean. Zita ostiral iluntze batean izan zen Asapala Euskara Elkarteak antolaturik. Duhaldek hasieran motel samar zegoen publikoa piztea lortu zuen bere umore hitzak eta emanaldiaren kalitatea dela medio. Azken disko honekin, 1981an hil zen eta hainbeste miresten duen kantaria omendu nahi izan du.**

Asapala Euskara Elkarteak ohikoa duen gisa bi hilean behin Mahatserrian euskara eta euskal kultura suspertzeko asmoz ekitaldiren bat antolatzen du. Anje Duhalderen aurretik egon dira Morau, Txuma Murugarren eta Ander Lipusen antzerkia, besteak beste. Oraingoan, Anje Duhalde kantariari egokitu zitzaion txanda. Lapurtarrak bertara gerturatu ziren mahatsorri guztien nahiak asetu zituen eskainitako kontzertu bikainean. Horretarako lan berriko eta aspaldiko diskoetako kantuak tartekatu zituen.

Arestian esan bezala, atera berri duen diskoan Georges Brassensen hamalau kantu moldatu ditu. Egokitze lana, hasieran, joko bat baino ez zela adierazten du, baina emeki-emeki obsesio bihurtu zela. "Bere kantuak egiteko manera, bere zehaztasuna, bere hitz zizelkatuak, beti harriria geratzen nin-

zen", aitortzen du Duhaldek eta, zentzu horretan, "umiltasun lezio ederra" hartu duela gaineratzen du.

### LEHEN ERE

Ez da lehen aldia halere, Duhaldek Georges Brassensen abestiak egokitu dituela. Aurreko diskoetan batzuk grabatu zituen, kontzertuetan ere emanak ditu, baina lapurtarraren ustez "huts egin bat" izan zen. "Kantuak musikarekin apaindu nituen, beharrik ez zutelarik. Kompaktua huts hori errekupezeko ere egin dut" dio. Hori dela eta, Brassensek egiten zuen bezala, Duhaldek publiko hertsu baten aurrean grabatu du diskoa.

"Fama txarra" eta "Loretxo bat" dira azken konpaktuan entzun daitezkeen abestietako batzuk. "Georges Brassensen kantari" lan honekin beraz,



olerkari okzitaniarrak badu euskarazko bertsioa ere. Askotan gertatu ohi da, dena den, moda kontuan jaustea baina ez da hau Duhalderen kasua, Brassensekin hogeituroko bidea baitu eginga diskoa atera aurretik.

Lapurtarrak, berriz, Brassens euskalduna izateko pretentsiorik ez duela ziurtatzen du eta bere oparirik handiena Euskal Herrian norbaitek konpaktu berriari esker Georges Brassensen ezagutza izatea litzatekeela argitzen du.

### EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO EKITALDI ANITZ

Asapala Euskara Elkarteak Topagunearen eskutik auzoan euskara eta euskal kultura bultzatzeko zenbait ekimen antolatu ditu jadanik. Topaguneak duen Kultur Errota izeneko zerbitzuaren bitartez, alegia.

Topagunea, euskara elkarte eta herri aldizkariaren federazioa izaki, Kultur Errota proiektua abian jarri zuen elkartei formatu txikiko kultur ikuskizunak prezio merkeagotan ahalbidetuz. Besteak beste, gurean izan dira Tolosako Morau,

Urtuellako Txuma Murugarren eta Berako Petti abeslariak. Antzerkiari dagokionez, euskal antzerkia azkenaldion astindu duen Ander Lipus ere bertan ikusteko parada eduki dugu mahatsorriok Asapalaren bidez.

Mahatserriko Asapala elkarteak hortaz, orain artean egin bezala auzo euskal kultura oinarri duten ekitaldiz hornitzen jarraitzeko asmoa du Topaguneako Kultur Errotari eutsiz. Uneotan aldiz, eskuarte dute apirilean Mahatserriko eskola, ikastola eta institutu zenbaitekin elkarlanean antolatuko duten euskararen astea. Baina horren gainean baduzue informazio gehiago aldizkari honetan bertan.

**A**

Biktimenganako Laguntza Zerbitzua

Servicio de Asistencia a la Víctima

*Zeurekin gaude*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
Giza Eskubiden eta Justiziarikiko  
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos  
y Cooperación con la Justicia



# horoskopoa

**Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**  
Txanponak, euroak, sosak, txakur handiak,... dirua baino ez darabilzu buruan ala?

**Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**  
Garbitzaile fina zareala erakutsi beharko dozu datozen egunotan. Badakizu, ezta?

**Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**  
Sorgina zareala entzun behar izan dozu behin baino gehiagotan. Ebagi egizu ulea, orraztu egizu eta... bota egizu erratz hori sastarretara.

**Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**  
Azken asteetako tentsioa amaitu da. Aurrerantzean lasai asko biziko zara.

**Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**  
Zenbat eta lo ordu gehiago egin orduan eta logura handiago! Hoba dozu gaupasak egitea...

**Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**  
Titiak blaust jauzten jatzuzala egia da. Arazoa handia dala egia da be bai. Baina, gizon, titizorroa jantzita problema konpontzen dozula pentsetan dozu?

**Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**  
Aurrera egin beharko dozu. Ezin dozu emon bizitza osoa atzera begira. Ganera, ze arraio, ordukoa be ez zan hainbesterako izan...

**Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**  
Zeure ziztadea pozointsua dala diño. Ez ei dekozu errukirik. Egon zaitetz hilabetez ixilik, ea esames horiek desagertzen diran.

**Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**  
Baina lagun, zertan zabilz egun argiz kaputxa jantzita jentea ikaratzen eta danbor hotsaren burrunbaz kaleak hustutzen? Konpartsz erratu zara, gazte.

**Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**  
Ideia bakarra dabilzu buruan: zelan egin behingoz karrera amaitzeko eta behar dan moduko uda parte emoteko. Ikasten hasiko baziña, zer?

**Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**  
Ondo dago gaupasarik gaupasa ibiltzea. Baina noizik behin aldatu egizuz zapata horiek, gauero lohitu egiten diralako.

**Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**  
Hiru zurito edaten dozuzan baktxean bertso kantari hasten zara. Holan segidu ezkerro tabernariet ez deutsue tragorik atarako. Tabernak hustutzen bakarra zara, lagun!

# agenda

**APIRILAK 5**  
BARON ROJO. KONTZERTUA.  
KAFE ANTZOKIA.  
GAUEKO 10ETAN.

**APIRILAK 11**  
EKON. KONTZERTUA.  
KAFE ANTZOKIA.  
GAUEKO 10ETAN.

**APIRILAK 13-14**  
URIGOITITIK ITXINA,  
LEKANDA ETA GOROSTETA  
(GORBEA). MENDI IRTEERA.  
EGUZKI LOREA  
MENDI TALDEA.

**APIRILAK 16-21**  
EUSKARAREN ASTEA  
SANTUTXU-TXURDINAGAN.

**APIRILAK 16-17**  
VII. SYMPOSIUMA. 'BIDAIK,  
BIDAIARIAK ETA TURISTAK  
BILBON'. BIDEBARRIETA  
LIBURUTEGIA.

**APIRILAK 18**  
KURAIK. KONTZERTUA.  
KAFE ANTZOKIA.  
GAUEKO 10ETAN.

**APIRILAK 19**  
SINIESTRO TOTAL.  
KONTZERTUA. KAFE  
ANTZOKIA. GAUEKO 10ETAN.

**APIRILAK 23**  
GANBERA-MUSIKA  
ASTEARTEETAN.  
BIDEBARRIETA LIBURUTEGIA.  
ARRATSALDEKO 8ETAN.

**APIRILAK 26**  
ELAI-ALAI. KAFE ANTZOKIA.  
GAUEKO 10ETAN.

**APIRILAK 30**  
GANBERA-MUSIKA  
ASTEARTEETAN. BIDEBARRIETA  
LIBURUTEGIA.  
ARRATSALDEKO 8ETAN.

